

## UDAL BATZARRAREN AKTA

**Akta zenbakia:** 7/2002

**Bilera data:** 2002-06-06

**Bilera mota:** Ohizko osoko bilkura

**Deialdia:** Lehenengoa

**Ordua:** 19:35 – 20:25

**Tokia:** Udaletxeko areto nagusia

### **Bertaratutakoak:**

**Alkatea:** Jose M<sup>a</sup> Sarasola Goenaga

**Alkate orde:** Pedro M<sup>a</sup> Peñagarikano Labaka

### **Zinegotziak:**

Miren Maite Aizpurua Etxeberria

Manuel Odriozola Iruretagoiena

Mikel Errazkin Agirrezabala

Rafael Uribarren Axpe

Mikel Zubillaga Galarraga

Jose Ignacio Otermin Garmendia

Jose Martin Uzkudun Agirre

### **Idazkaria:**

Iñaki Arrue Espinosa

### **Aztergaiak:**

1.- Udalbatzarrak 2002ko maiatzaren 28an egindako bilkurari dagokion aktaren onspena.

2.- Alkatetzako Dekretuen berri ematea 176-bis eta 211 zenbakitik 266 zenbakira, biak barne.

3.- Musika Eskolako tasen aldaketa.

4.- Idahoko legebiltzarraren ekimenaren aurrean adierazpen instituzionalari buruzko mozioa.

5.- Galde-erreguak.

## **Esan-eginak eta erabakiak:**

### **1.-. Udalbatzarrak 2002ko maiatzaren 28an egindako bilkurari dagokion aktaren onspena.**

Aipatutako akta alkateak irakurri du eta udalbatzarrak aho batez onetsi du akta, *"1. eremuaren eta 19. eremuaren arteko hitzarmena onesteko proposamena"* izenburuko bigarren puntuan ondorengo zuzenketa eginez:

EA/EAJ-PNV koalizioko bozeramailea den Uribarren zinegotzi jaunak eskatuta, bosgarren lerro-zatian esaten duenean: *"Jarraian EAJ-PNV/EA koalizioko bozeramailea den Uribarren zinegotzi jaunak hitza hartu du esateko bere talde politikoak ez duela parte hartuko erabaki honetan lur-zati hauen trukaketa-prozesua ondo ezagutzen ez dutelako, ez daudela trukaketaren aurka, baina uste duela sakonkiago eta hobeago aztertze eta begiratzeko gaia dela."*, esan behar du: *"Jarraian EAJ-PNV/EA koalizioko bozeramailea den Uribarren zinegotzi jaunak hitza hartu du esateko bere talde politikoak ez duela parte hartuko erabaki honetan, bi lur-zati hauen trukaketako dokumentazio zuzena eta definitiboa jaso zuten garaia eta bilkura honen arteko denbora oso motza izan delako gaia behar bezala aztertze, hasiera batean emandako dokumentazioa akats batzuk zituela eta gero zuzendutako dokumentazioa bilkuran bertan banatu zaiela kontuan hartuz"*.

### **2.- Alkatezako Dekretuen berri ematea, 176-bis eta 211 zenbakitik 266 zenbakira, biak barne.**

Alkateak egindako ebazpenen berri eman du, ebazpen horien zenbakiak 176-bis eta 211tik 266ra bitartekoak izanik, biak barne.

Hortaz, udalbatzarrak hartu du ondorengo

#### **Erabakia**

Alkateak 176-bis eta 211 zenbakitik 266 zenbakirako dekretuen berri eman ditu eta, beraz, udalbatzarra jakinaren gain geratu da.

### **3.- Musika Eskolako tasen aldaketa.**

Alkateak gaia aurkeztu du eta hitza eman dio Manu Odriozolari, kultur zinegotziari gaia azaltzeko.

Manu Odriozolak, kultur zinegotzi jaunak, azaldu du alde batetik “Loatzo” Musika Eskolako Mankomunitatea ari direla sortu nahian eta, bestetik, eskolaren berri asmaketa eratzten. Horren arabera, Odriozola jaunak esan du aurreikusitako tasak eta orain proposatzen direnak baino garestixeagoak direla eta, funtsean, aurtengo ikasturterako tasak orain proposatzen ari direla.

Jarraian, Mikel Zubillaga zinegotzi jaunak hitza hartu du galdetzeko ea udaletxeak asumituko duen prezioen jaitsiera suposatuko duen kostea.

Odriozola zinegotzi jaunak erantzun dio ezetz, musika eskolaren definizio berrian aldaketa garrantzitsuak ematen ari direla, adibidez, batez ere, tresna klaseak bakarka irakasteko hiru ordu laurden edo ordu betekoak zirela; orain, ordea, ordu erdia edo ordu betea era kolektiboan. Horregatik esan du uste duela ez dela garestiago aterako udalarentzat, alderantziz, espero dutela berri antolaketaren ondorioz kostu ekonomikoei dagokienez merkeagoak ateratzea tresna bakarka irakasteko denborak kasu gehienetan murrizten baitira.

Mikel Zubillaga zinegotzi jaunak galdetu du ea horrek (prezioen murrizpenak) ez ote duen eraginik gai honen aurrean Billabona udalerriak lehenago izan duen ezezko jarrera aldatzeko.

Odriozola zinegotzi jaunak erantzun dio Billabonari zer komeni zitzaion ez zela garbi ikusten eta, orduan, atzean geratu zirela. Orain hausnarketan jarraitzen dutela eta horrek ez du esan nahi ez Billabona ez eskualdeko beste edozein herri sartuko ez denik, gainerako udalerriek aurkezteko aukera baitute.

Mikel Zubillaga zinegotzi jaunak ere galdetu du datorren urterako (2003. urterako) Anoetako udaletxearentzako gutxi gora behera mankomunitateko koste ekonomikoa kalkulatu duten.

Odriozola zinegotzi jaunak erantzun dio zaila dela datorren urteko kostea jakitea ikasle-kopuruaren arabera kalkulatzeko baita. Hala ere, berri asmaketan erreferentzia garrantzitsuenetakoa izan dira Eusko Jaurlaritzako musika eskola arautzeko dekretuak eta dirulaguntzak emateko aginduak. Helburua dela erreferentzia horiek eta baita ikasleak herena ordaintzea ere, eta aldarrikatzen dutela Eusko Jaurlaritzak beste herena jartzea, eta udalak beste herena.

Manu Odriozola zinegotzi jaunak azpimarratu du Anoetan ikasle kopurua jaitsi egingo dela eta irakasleen dedikazio-denbora ere jaitsiko dela, baina mankomunitateak beste herrietan emango duen zerbitzua kontuan hartuz uste duela epe motzetan oraingo irakasleen dedikazioa mantenduko dela eta epe ertainera dedikazio osoa eta irakasle gehiago beharrezkoak izango direla. Guzti

horrek ez duela esan nahi koste ekonomikoa udalarentzako gehiago izango denik. Azkenik esaten du epe ertainera merkeagoa eta zerbitzu osatuago, borobilagoa eta kalitate handiagokoa izango dela.

Jarraian Uribarren zinegotziak galdetu du Eusko Jaurlaritzak konpromisoa hartu duen bere parte (herena) pagatzeko.

Odriozola zinegotziak erantzun dio batz besteko Eusko Jaurlaritzako laguntza %15 edo %17koa izaten dela, baina horrek ez du esan nahi herena pagatuko ez duenik, Aportazio ekonomikoak (hiru herenekoak) urtero kalkulatu direla jakitun edo aditu batzuek egindako formula baten bitartez baina gero ez dela betetzen, Eusko Jaurlaritzak hereneko aportazioa egitea aldarrikapen historikoa dela, Jaurlaritzak ematen ez duena udalak, erakunde bezala, nahitaez jarri behar duela.

Azkenik, Uribarren zinegotziak galdetu du ea tasak berdinak diren udalerrri guztientzako.

Odriozola zinegotziak erantzun dio berdindu egin dituztela tasak eta matrikulazio-baldintzak eta epeak.

Gaia eztabaidatu ondoren bozketa egin da eta udalbatzarrak ondorengo erabakia hartu du:

### **Erabakia.**

Udalbatzarrak aho batez onartu du:

1.- Zerbitzu Publikoak Eskaini eta Jarduera Administrazioak Burutzeagatik Ordaindu Beharreko Tasen Ordenantza Arautzailearen eranskineko K) puntua aldatzea. Honela geratuko da:

### **K.- UDALAK IKASTARO MODUAN SUSTATZEN DITUEN MUSIKAKO AKTIBITATEETAN PARTEHARTZEA**

	<b>ERROLDAT.</b>	<b>EZ ERROLATUAK</b>
1.- Tailerra/Taller .....	87,15 €	240,40 €
2.- 2. eta 3. maila, honako ikasgai hauengatik : Nivel 2 y 3 por las siguientes asignaturas		
a)Lenguaia/lenguaje .....	72,12 €	289,17 €
b)Instrumentua/instrumento.....	180,30 €	562,28 €

c)Korua/Coro.....	72,12 €	112,46 €
d)Talde Instrumentala/Conjunto instrumental:.....	87,15 €	427,82 €
e)Armonia/Forma/Historia:.....	87,15 €	249,90 €
f)Instrumentua+osagarri bat Instrumento + un complemento:.....	240,40 €	
g)Instrumentua+2 osagarri Instrumento + dos complementos:.....	300,51€	
h)Instrumentua+3 osagarri Instrumento + tres complementos:.....	390,66€	
i)Bi instrumentua Dos Instrumentos .....	330,56 €	
i)Irakaskuntza indartua Enseñanza reforzada .....	Matrikularen arabera	

**TARIFA HAU APLIKATZEKO ARAUAK:**

- 1.- 2g) eta h) atalak Anoetan erroldatutakoei soilik aplikatuko zaizkie.
- 2.- 2.g) eta h) ataletan adierazitako osagarrietan ez da instrumentua sartuko.
- 3.- Udal Musika Eskolako irakasleei anoetarren tarifa aplikatuko zaie beti.
- 4.- Matrikula egin ahal izateko, aurreko ikastaroen kuoten ordainketak eguneraturik egon behar dute.
- 5.- Matrikulazio epeak:
  - a) lehen egondako ikasleak: maiatzaren 15etik ekainaren 14ra eta ekaina bukaeran edo uztaila hasieran notak banatzearekin batera.
  - b) ikasle berriak, lehengo izena ematen dutenak: irailean  
Ez da matrikularik onartuko epez kanpo.
- 6.- Behin matrikula eginda gero, ikasleak ez jarraitzea erabakiko balu:

- a) klaseak hasita baldin badaude, matrikularen kostu osoa ordaindu beharko du.
- b) klaseak hasi gabe baldin badaude, 1. epeari dagokion zatia soilik ordaindu beharko du.

7.- Udal Kultura Batzordeari dagokio matrikula egiteko orduan gertatzen den edozein gorabeheraren inguruan irtenbide bat proposatzea, baldin eta arau hauetan ezer esaten ez bada gorabehera horri buruz.

8.- MURRIZPENAK Anoetan eroldaturik daudenentzat soilik izango dira aplikagarri

- a) “Gazte Txartela”ren jabe direnek %10eko beherapena izango dute, beti ere matrikula egiterakoan aurkezten badute, eta ezin izango da murrizketa gerora eskatu.
- b) Famili Ugariaren kartilaren jabe direnen familiako kideek %25eko murrizketa izango dute matrikulazioan.
- c) Epigrafe honetan agertzen diren tarifak murrizketa bat izango dute, P.G.S.ren arabera, ondorengo taula jarraituz:

ETXEAN BIZI DIREN PERTSONAK PERSONAS QUE VIVEN EN LA CASA	%90	% 75	%50
<b>1 EDO 2 PERTSONA</b> 1 O 2 PERSONAS	<b>PGS</b> S.M.I	<b>P.G.S.+%10</b> S.M.I + 10%	<b>P.G.S.+%20</b> S.M.I + 20%
<b>3 PERTSONA</b> 3 PERSONAS	<b>P.G.S.+%10</b> S.M.I +10%	<b>P.G.S.+%20</b> S.M.I + 20%	<b>P.G.S.+%30</b> S.M.I + 30%
<b>4 PERTSONA</b> 4 PERSONAS	<b>P.G.S.+%20</b> S.M.I +20%	<b>P.G.S.+%30</b> S.M.I + 30%	<b>P.G.S.+%40</b> S.M.I + 40%
<b>5 PERTSONA</b> 5 PERSONAS	<b>P.G.S.+%30</b> S.M.I +30%	<b>P.G.S.+%40</b> S.M.I + 40%	<b>P.G.S.+%50</b> S.M.I + 50%
<b>6 PERTSONA</b> 6 PERSONAS	<b>P.G.S.+%40</b> S.M.I + 40%	<b>P.G.S.+%50</b> S.M.I + 50%	<b>P.G.S.+%60</b> S.M.I + 60%

c.1)Atal honetan adierazitako murrizpena lortzeko, interesatuak honako agiri hauek aurkeztu beharko ditu:

- . Murrizpenaren eskaera, egungo egoera ekonomikoak aldaketarik izanez gero, hurrengo urteko PFEZren Aitorpenaren kopia aurkeztuko duela hitz emanaz.
- . Aurreko urteko PFEZren Aitorpenaren kopia edo aurkeztu ez izanaren agiria.

c.2)Egoera aldaketetan momentuko agiriak aurkezteko aukera izango da.

c.3)Titular-jabeekin bizi diren seme-alaben eta gurasoen diru-sarrerak (aiton-amonak) %75ean kontabilizatuko dira.

c.4)Eskatzaileari dagozkion murrizpen guztiak batu ondoren, ezingo da % 90eko murrizpena gainditu, beraz, eskatzaile guztiek gutxienez % 10 ordaindu behar dute.

9.- Erroldaturik daudenentzat nahiz ez daudenentzat, Tasaren ordainketa ondorengo eran egingo da:

- %25, matrikula egiterakoan
- %40, azaroaren 30a baino lehen
- %35, martxoaren 30a baino lehen.

2.- Onartutako behin behineko akordioa udal tabloian 30 egunetan erakusgai jartzea eta Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean iragarkia argitaratzea interesatuek epe horretan erreklamazioak egin ahal izateko iragarkia argitaratu eta hurrengo lanegunetik hasita.

#### **4.- Idahoko legebiltzarraren ekimenaren aurrean adierazpen instituzionalari buruzko mozioa.**

Alkateak aurkeztu du aurreko bileran mahai gainean utzitakoa, Idahoko mozioa aldaketa-proposamena, hain zuzen.

EAJ-PNV/EA koalizioko bozeramailea den Uribarren zinegotzi jaunak aurkeztu du *“Idahoko legebiltzarraren ekimenaren aurrean adierazpen instituzionala”* izeneko mozioari hurrengo aldaketa proposamena:

Mozioaren azkenaurreko lerro-zatian esaten duenean: *“Anoetako Udalak, Idahoko legebiltzarrak egin duen bezala, espainiar eta frantziar estatuetatik etorri daitezkeen presio guztiei aurre egin eta gure Herriarentzat autodeterminazio eskubidearen aitortza gauzatzearen alde pausuak emateko konpromezu tinkoa hartzen du.”*, esan behar du: *“Anoetako Udalak, Idahoko legebiltzarrak egin duen bezala, JOINT MEMORIAL 114.ak diona onartuz, espainiar eta frantziar estatuetatik etorri daitezkeen presio guztiei aurre egin eta gure Herriarentzat autodeterminazio eskubidearen aitortza gauzatzearen alde pausuak emateko konpromezu tinkoa hartzen du”*.

Alkateak, Batasuneko talde politikoaren izenean eskatu du etenaldia mozio-aldaketa irakurtzeko eta horren inguruko erabakia hartzeko.

Etenaldia izan ondoren, alkateak adierazi du, beraien ustez, EAJ/PNV-EA talde politikoaren proposamenak mozioaren helburua aldatzen duela, hau da, Idahon Euskal Herriaren alde emandako pausoak zorientzea eta autodeterminazio eskubidearen aitortza gauzatzearen alde pausoak ere hemen egitea, eta Estatu Batuetako legeriari erreferentzia egiten diola eta prestatuta dagoela hango giroa onartzeko eta, beraz, Anoetak Udalak onartzea han onartutakoa ez duela zentzu handirik ikusten.

Jarraian alkateak proposatzen du, EAJ/PNV-EA koalizioak proposatutakoaren orde, mozioaren azkenurreko parrafoari ondorengo esaldia gehitzea: *“.....beti ere giza eskubide guztiak errespetatuz.”*

Uribarren zinegotzi jaunak berriro hitza hartu du esateko, Batasuneko erantzun horren aurrean, bigarren aukera bezala proposatzen duela onartzea Gasteizko Legebiltzarrak hartutako erabakia Idaho estatuko Kongresuaren eta Senatuaren Euskal Herriari buruzkoa, ondorengo erdibideko zuzenketa jasotzen duena:

*“Eusko Legebiltzarrak oso positibotzat jotzen du Idahoko estatuko Kongresuaren eta Senatuaren Euskal Herriari buruzko 114 Joint Memorial delakoaren ebazpenak, bai eta oso-osorik bere egin ere”*.

Asko eztabaidatu ondoren, bi azken mozio hauek bozkatzea erabaki du udalbatzarrak.

Batasuna talde politikoak aurkeztutako mozioa udalbatzarrak bozkatu du eta bozketaren emaitza ondorengoia izan da:

Alde: 5 (Batasuna)  
Aurka: 4 (EA-EAJ-PNV)  
Abstentzia: 0

Ondoren, EAJ-PNV/EA koalizioko mozioa udalbatzarrak bozkatu du eta bozketaren emaitza ondorengoia izan da:

Alde: 4 (EA-EAJ-PNV)  
Aurka: 5 (Batasuna)  
Abstentzia: 0

## **Erabakia**

Udalbatzarreko gehiengo osoa osatzen duten zinegotziek "Idahoko legebiltzarraren ekimenaren aurrean adierazpen instituzionala" ondorengo mozioa onetsi dute:

### *IDAHO-KO LEGEBILTZARRAREN EKIMENAREN AURREAN ADIERAZPEN INSTITUZIONALA*

*Martxoaren 11-ean Amerikako Estatu Batuetako, Idaho-ko estatuko Legebiltzarrean, Euskal Herriaren autodeterminazio eskubidearen aldeko ekimena onartu berri da. Ekimen horretan bertan, Euskal Herriak frantziar eta espainiar estatuekin duen gatazkaren konponbiderako elkarrizketaren beharra jartzen da mahaiaren gainean.*

*Gure herriaren askatasuna eta bake bideratzearen bidean pausu garrantzitsua den hau, oso gertutik ari gara jarraitzen Euskal Herritar guztiok. Behin eta berriz, Idahoko, Estatu Batuetako eta nazioarteko iritzi publikoaren aurrean oso garbi geratzen ari da, Autodeterminazio eskubidearen aitortza alegia, Herri honek bere etorkizuna libreki erabakitzeko eta gauzatzeko aukera izatea dela, behin betikoz, hainbeste behar dugun bakea lortzeko bide bakarra.*

*Euskal Herriko eragile politiko eta sozialen gehiengoa gure Herria bake iraunkorra izan dadin lanean ari gara. Hala ere, nazioartekoak ere badu zer esanik Euskal Herria normalizazio politikoaren bidean sartzeko pausuen aurrean. Euskal Herria, nazio bat delako, eta era berean, nazioarteko legerietan munduko herri guztiei zor zaizkien eskubide politiko eta zibilen subjektu delako.*

*Anoetako udaletik, garrantzizko pausua eman delakoan gaude, eta bere ausardiagatik zoriontzen ditugu Idahoko Legebiltzarra eta ekimen politiko hau bultzatu duten eragile eta pertsonak.*

*Hala eta guztiz ere, eta berriro ere, espainiar estatuko agintariek oso garbi utzi dute, Euskal Herriaren demokraziaren bidean edozeinek, edonon, ematen duen pausu ororen aurka ahalegin guztiak egingo dituela. Azken berrehun urtetan hori egin dute eta orain ere horretan ari dira, baliabide guztiak erabiliz.*

*Anoetako udalak, Idahoko legebiltzarrak egin duen bezala, espainiar eta frantziar estatuetatik etorri daitezkeen presio guztiei aurre egin eta gure Herriarentzat autodeterminazio eskubidearen aitortza gauzatzearen alde pausuak emateko konpromezu tinkoa hartzen du, beti ere giza eskubide guztiak errespetatuz.*

*Horrela jakin arazten diogu, Idahoko Legebiltzarrari, espainiar eta frantziar estatuen ordezkari nagusiei eta orohar nazioarteko iritzi publikoari.*

*Euskal Herrian, 2002. urteko martxoan.*

## **5.- Galde-erreguak.**

Uribarren zinegotzi jaunak adierazi nahi izan du bere keja honako plenoaren deialdiari buruzkoa, aurreko plenoan tratatu zen trukaketa-hitzarmenari buruzko gaia ez zutela eskatu mahai gainean uztea hurrengo bilkura uztaile arte ez baitzuten ezperu.

Peñagarikano zinegotzi jaunak ere hitza hartu du komentatzeko Loatzo Musika Eskolako Mankomunitateari buruzko txostena Foru Aldundiak alde eman duela, zuzenketa tekniko txiki batzuk proposatzen baditu ere.

Bilkura amaiturik, agiri hau egin dut alkate-lehendakariaren oniritziarekin, eztabaidatutakoaz eta erabakitakoaz fede emateko.

Anoetan, 2002ko ekainaren 6an

Iñaki Arrue Espinosa  
Bitarteko idazkaria

O.e.  
Jose M<sup>a</sup> Sarasola Goenaga  
Alkatea